



alderdienforoa

bake-prozesuari buruzko argitalpen monografikoa

2000ko apirila

ankita

www.elkarri.org

elkarririlagundu

nahi badiozu, ondorengo bide hauek erabil ditzakezu

- elkarriren dirulaguntzailea izan nahi dut (14 kuota urtean)
Diru-laguntzaile guztiek dohainik jasoko dituzte Elkarri eta Elkarrikasi aldizkariak 1.500 pta. 2.000 pta. 5.000 pta. 10.000 pta.
- Aportazio bakarra egin nahi dut 10.000 pta. 25.000 pta. 50.000 pta. 100.000 pta. pta.
- elkarriren ekimenetan lagundu nahiko nuke
bai
- Nire etxean jaso nahi ditut Elkarri eta Elkarrikasi aldizkariak 4.000 pta. (urteko kuota) 1.000 pta. (hiruhilabeteko kuota)
- Hauetako argitalpen gehiago bidaltzerik ez dut nahi
- elkarriri buruzko informazioa jaso nahi dut aldiro e-mailez. Hau da nire helbide elektronikoa _____

izen-abizenak _____ N.A. _____ tfnoa. _____
helbidea _____ herria _____
herrialdea _____ kode postala _____
banku edo aurrezki kutxa _____
kontu zenbakia (20 digito)

elkarri@elkarri.org

gipuzkoa
madril etorbidea, 5
20011 donostia
tf. 943 45 93 75 fax. 943 45 07 58
e-mail: gipuzkoa@elkarri.org

navarroa
tutera kalea, 18 - 2. G
31003 iruna
tf. 948 24 84 00 fax. 948 24 92 88
e-mail: nafarroa@elkarri.org

araba
estibalitz etorbidea 2 - 1. - 5. bulegoa
01003 gasteiz
tf. 945 25 61 76 fax. 945 28 00 97
e-mail: araba@elkarri.org

bizkaia
arenal, 5 - SVRNE 209. bulegoa
48005 bilbo
tf. 94 479 03 16 fax. 94 415 80 03
e-mail: bizkaia@elkarri.org

inprimategia: Antza, Industrialdea 2. pab.- 20160 Lasarte

lege gordailua: BI-327-99



sailberriaren aurkezpena

Alderdien Foroari buruzko edizio monografiko berezi honek elkarriren lan-ardatz berri bati ematen dio hasiera. Aurreko urtean zehar eta hiruhilabeteroko aldizkakotasunez, bake-prozesurako gakoak landu dituen «Eraikikasi» adiskidetze kultura hedatzeko ekimena ordezkatzera dator. Gako hauek «erraztu», «elkarlanean aritu», «ez baztertu» eta «demokrazian sakondu» izan dira eta 40.000 helbidetara bidali dira, herri honen gizarte sarearen muin garrantzitsuenetara helduz.

Esperientziaren emaitza onak ikusirik, gizarte mugimendu honek sail berri bat martxan jartzea erabaki du, irudi berrituarekin. Sail berri honek bake-prozesuaren inguruko gai zehatzak eta gaurkotasun handikoak jorratuko ditu: «biktimak bake-prozesuan», «gizartearen partehartzea», «presoak» edo «herri-kontsulta». Guztiek argitalpen monografiko bat izango dute, eskutan duzuna bezalakoa, eta herrietan eta orokorrean egingo diren beste zenbait ekimenekin osatua izango da: kale-irteera informatiboak, hitzaldiak, mahainguruak edo ekimen mobilizazioak.

Eskema ahalik eta sinpleena eta argiena izango da, eta bere edukia proposamen edo ekimen zehaztetan bilduko du. Adibidez, alderdien Foroari buruzko argitalpen eta kanpaina honekin EAE, Nafarroa eta Espainiako Lehendakariei igorriko zaizkien alderdien Foroa martxan jartzearen aldeko atxikimendu bilketa bat egingo dugu.



«alderdien foroa» argitalpen monografikoaren aurkezpena



Bakea eta normalizazioa eremu sozial guztietan eraikitzen da baina baita maila politikoan ere oso modu esanguratsuan. Monografiko honek eremu hori jorratzen du. Gero etorriko diren beste argitalpenek hiritarren partehartzea edo humanizazioa landuko dute.

Gizarte mugimendu hau jaio zenean, 1992an, bakerako elkarrizketaren aldarrikapenak izaera berritzailea, ia iraultzailea zuen eredu nagusiarekiko. Gaur egun, elkarrizketaren eskaerak —metodo bezala zalantzan gero eta gutxiago jartzen dena— zehaztapen grafikoa eta argia du, izen eta abizenekin: alderdien Foro bat martxan jartzea.

Jakina, alderdien Foroa tresna bat besterik ez da; bakea eraikitzeko beharrezkoak dira baita borondatea eta egitasmoak ere. Baina, aldi berean, borondatea eta egitasmoak garatu ahal izateko prozedura demokratikoak behar dituzte.

Ikuspegi dinamiko eta progresibo batetik, gaur egun alderdien Foroa ahalbidetuko luketen elkarrizketa alderdianitzetaz hitz egin beharko genuke, Foro honek, aldi berean, akordio berriak eragin ditzan. Edozein modutan, argitalpen hau erdibidean zentratuko da, hots, alderdien Foroan.

Eta bi modutan lagundu nahi du. Lehena, alderdien Foroaren ideia zehaztapena eta irudikapena sozialki hedatuz. Bigarrena, proposamen honetara atxikitzeko aukera eskainiz, ondoren arduradun politikoei helarazteko.





○ 1. zer da alderdien Foroa

Edozein bake-prozesutan elkarriketak, indarkeriarik ezarekin batera, oinarrizko papera jokatzen du. Printzipio hau orain eta hemen zehaztu behar da. Gertuko beste esperientziek erakusten dutenez, alderdien Foroa bazterketarik gabeko elkarriketa demokratikoa jorratzeko prozedura logiko eta eraginkorra da. Praktikan, ordezkari politikoek konpondu gabeko elkarbizitza arazoei konponbideak bilatzeko elkarrekin lan egitea erabakitzen dutela esan nahi du, jarrerak kontrajarriz eta gaurko egoerak baino kontsentsu handiagoa lortuko duten proposamen berriak adosteko. Irudi gertukoena, Ostiral Santuko bake-akordioa gauzatu zuten Belfasteko Stormont Jauregiko elkarriketak dira.

○ 2. helburuak

Alderdien Foroaren lehen helburua, topagune eta konfluentzia marko bat eskainiz, bake-prozesua erraztea eta bideratzea da. Gatazken konponketa-tailerra da. Prozesuaren printzipioak eta prozedurak finkatzen ditu. Gure kasuan, azken helmuga Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan, guztiak barne hartuko dituen eta guztiek onartuko duten elkarbizitzari buruzko oinarrizko akordio berri bat zehaztea da. Azken batez, bere misioa normalizazio politikoa bultzatzea da. Beste modu batean esanda, joko politikoaren arauak adostu eta, bereziki, etorkizunean gatazkak modu baketsuan eta demokratikoan nola konpondu adostea da.

○ 3. printzipioak

Elkarren arteko konfidantza sortzen duen guztia. Bereziki: prozesu demokratikoarekin eta bide politiko eta baketsuekin; gehiengoaren borondatearen errespetua izatea eta alde aurretik mugarik ez jartzea. Mota guztietako indarkeriak desagertzea eta gizartearen bultzada dira erraztuko duten faktore nagusiak.

○ 4. prozedura

Edozein lan talde edo Legebiltzarreko batzorde bat bezalakoa. Malgutasun baten barruan, logikak lau urrats finkatzera eta jorratzera gonbidatzen gaitu.

1. urratsa. Lanerako prozedura, agenda eta erabakiak hartzeko arauak finkatu. Beste prozesuetan honek eramaten du denborarik gehiena. Edukietan sartu aurretik, ezinbestekoa da lan-metodoa adostea.

2. urratsa. Analisisien eta proposamenen elkar trukaketa eta eztabaida. Alde guztiek onartzen dituzten proposamenak eta ñabardurak dira azkenik aurrera egingo dutenak.

3. urratsa. Adostutako proposamenen islada ordenamendu juridiko eta instituzionalean. Paperean eta formatu legalean ondorioak zehaztea, konponbiderako borondateen egiazkotasunaren eta bideragarritasunaren test-a da.

4. urratsa. Baliozkotasun demokratikoa. Onarpen instituzionalaren bidez eta, azkenean, herri-kontsultaren bidez, gizartearen onspena jasoz.



Gure kasuan, gatazkak bi erkidego politikoetan —EAEn eta Nafarroan— eragiten duenez, logikoa dirudi alderdien Foroa bi mahaietan osatzea: Gasteizen eta Iruñan. Topaleku fisikoa Parlamentua edo guztiek interesgarria deritzoten beste bat izan daiteke. Komenigarria litzateke baita ere, bi mahaietako arduradunen artean komunikazioa eta koordinazioa izatea.

○ 5. edukiak

Ordezkarri politikoek egokitzen hartzen dituzten gai guztiak. Simulazio gisa, jarraian azaltzen dena agenda-proposamen bat izan liteke.

1. Lan prozedurak: parte hartzeko arauak eta egutegia.
2. Autonomia garaiaren balantzea. Alde onak eta hutsuneak.
3. EAEn eta Nafarroaren etorkizuneko estatus juridiko eta politikoa: elkarbizitza soziopolitikoaren normalizazio eta hobekuntzarako proposamenak.
 - 3.1. Erabaki subjektua eta eremuari buruzko berrikuspena, zehazpena eta hitzarmena: nork, zertaz eta nola erabakitzen duen.
 - 3.2. Autogobernua eta burujabetza.
 - 3.3. EAEn, Nafarroaren eta Iparraldearen arteko harreman politikoa.
 - 3.4. EAE/Nafarroa Europako eremuan.
 - 3.5. Etorkizunean gatazkak konpontzeko aurreikuspenak eta bermak.
4. Proposamenen zehaztapena eta islada normatiboa; ordenamendu juridikora eranstea.
5. Indarkeriaren biktimei ordaintza bake-prozesuan.
6. Presoak eta exiliatuak etorkizuneko bake egoeran.
7. Akordioen onarpen instituzionalerako ibilbidea eta gizartearen onespena.

○ 6. partehartzaileak

Alderdien Foroko solaskideak EAeko eta Nafarroako Parlamentuetan ordezkaritza duten alderdiek izendatutako ordezkarriak izan behar dute. Hautontzietatik pasatu izanak legitimitatea eman eta aukera bakoitzak gizartearen duen atxikimendua egiaztatzen du. Moderatzaile eta dinamizatzaile lanak Lehendakariak edo Nafarroako Presidenteak egin ditzakete, edo baita partehartzaile guztiek onartutako beste autoritate batek ere. Gobernu Zentralak elkarrizketetan partehartze modu bereziren bat izan beharko du. Era berean, komenigarria litzateke Foroa irekita egoeta eta gizartearen partehartzea bideratzeko mekanismoren bat finkatzea, gizarte-eragile, adituak eta ekarpenak egin nahi dituztenei entzun eta kontsultatu ahal izateko, eta egiten dituzten ekarpenak baliogarritzat jotzen baldin badira, kontuan hartu ahal izateko.

○ 7. zergatik orain

Lerro hauek idazten ari garen une honetan bake-prozesua krisian dago. Indarkeriaren iraupenak eta elkarrizketarik ezak egoera osasunez kaxkar dabilela adierazten du eta sofrimenduaren eta arazo enkistamenduaren jarraipena iragartzen dute. Pasa dira hauteskunde orokorrak, gure herriaren egoera soziopolitiko pixka bat hobeto ezagutzen dugu eta, printzipioz, hauteskunderik gabeko bi urte t'erdiko ziklo berria hasten ari da. Egungo krisi egoeratik ateratzeko ekimena izan, blokeo egoera gainditu eta arazoak mahai baten inguruan aztertzea da bidea.

